



IKASTETXEA	AIXERROTA BHI	KODEA	015109
Arloa/ Irakasgaia	MATEMATIKA I	Zikloa / Maila	1.BATXILERGOA
Irakasleak	Elsa Irusta,Mamen Peña	Ikasturtea	2015~16

HELBURUAK	EBALUAZIO - IRIZPIDEAK
1. Aritmetika eta Aljebra tresnak: Berreketak, logaritmoak,Zenbaki konplexuak,segidak,ekuazioak eta inekuazioak	1. Zenbaki errealekin eragiketak trebetasunez egitea. 2. Logaritmoaren kontzeptua eta propietateak ezagutu eta aplikatzen jakitea. 3. Zenbaki konplexuak ezagutu eta haiekin operatzen jakitea erabinomikoan. 4. Segideen kontzeptua. Progresio aritmetiko eta geometrikoak. Buruketak ebazten kapazak izatea. 5. Era guztietako ekuazio eta inekuazioak ebazten jakitea.
2. Trigonometria	6. Angeluen arrazoi trigonometrikoak eta euren arteko erlazioak ezagutu era erabiltzen jakitea.Edozein triangelu ebazten jakitea 7. Formula trigonometrikoak ezagutu eta ekuazioak ebazten jakitea.
3. Geometria	8. Planoko zuzenaren ekuazioak, zuzenen arteko posizioak eta planoko metrika erabilera .jakitea 9. Puntu simetrikoaren kalkuluen prozedura
4. Funtzioak	10.Oinarrizko funtzioen grafikoen azterketa egiten jakitea. 11.Limiteak grafikoei aplikatzen jakitea adar infinitu eta asintoten kalkuluan.
5. Deribatuak	12.Deribatuaren kontzeptua ezagutu eta deribatuen kalkuluan trebetasuna izatea. 13. Edozein funtzio polinomiko eta arrazionalen adierazpen grafikoa egiteko kapaza izatea.
6. Integralak	14.Integralaren kontzeptua eta kalkulua. Integral mugatuaren definizioa eta erabilera kurb aazpiko azalaren kalkuluan.



EDUKIEN SEKUENTZIA

Ord	1. ebaluazioa	Ord	2. ebaluazioa	Ord	3. ebaluazioa
22	Zenbaki errealak, logaritmoak: eragiketak. Segida: kontzeptua. Segida baten limitearen aurkezpena. Progresio aritmetikoak eta geometrikoak. Polinomioak eta zatiki algebraikoak Zenbaki konplexuak. Era binomikoan.	12	Angelu baten arrazoi trigonometrikoak. Triangelu zuzenaren ebazpena Edozein triangeluaren ebazpena. Formula trigonometrikoak ekuazio trigonometrikoetan erabiltzeko. Bektoreak, eragiketak. Konbinazio lineala eta biderkadura eskalarra. Geometria analitikoa.	10	Funtzioen limiteak. Asintotak jarraitasuna eta adar infinituak.
18	Ekuazioak. Birkarratuak, errodonak, frakzio algebraikoak, esponentzialak eta logaritmikoak. Ekuazio sistemak. Inekuazioak: polinomikoak	6	Problema afin eta simetrikoarena prozedura.	20	Deribatuen kontzeptua. Deribatuen kalkulia. Deribatuen aplikazioak: gorakortasuna, puntu singularrak, ahurtasuna. Funtzio polinomiko eta arrazionalen adierazpena. Optimizazio problemak.
		12	Oinarrizko funtzioak; Funtzio kontzeptua.- Definizio eremua.- Funtzio linealak eta koadratikoak .- Alderantzizko proportzionaltasuneko funtzioak eta errodonak.- Zatika definitutako funtzioak. Funtzio esponentzialak eta logaritmikoak.	6	Jatorrizkoak; Definitzio eta kalkulia. Barrowen erregela. Kurba baten eta X ardatzaren arteko azaleraren kalkulia.

METODOLOGIA

Irakasleak kontzeptu berriak azalduko ditu ikasle guztientzat, eta ariketa mota desberdinak landuko ditu guztientzako.

Ikasleak, bakarka zein taldeka, lanean arituko dira gelan, irakaslearen laguntza izango dute behar denerako.

Ikasleek egunero egingo dute lan etxean. Lan pertsonal horretan klasean landutako ariketa ereduak sakonduko dituzte.

Etxeko lana gelan errebisatuko da, pantailan ariketa ebatziak jarriko dira, zalantzak aztertuko dira.

Ikasturtearen zehar, ebaluazio jarraituan egiten diren azterketak behin zuzenduta ikasleak etxera eramango ditu irakasleak ebatzitako ereduarekin. Honela egindako hutsak patxadaz eta arretaz begiratuko dituzte, asmoa da azterketa ikas prozesuaren tresna bat izatea ikaslearentzako ere. Azterketa aztertu ondoren irakasleari bueltatuko zaio.



EBALUAZIO TRESNAK _{oa...]}	KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK
<ul style="list-style-type: none">Irakasleek sortutako material gehigarriak.Aurreko 10 urteetako selektibitate azterketak, irakasleak ebatzita.Kalkulagailu zientifikoa.Ordenagailua. Liburu digitala , arbel digitala eta mintegiko siteaTESTU LIBURUA: Matematika II ARGITALETXEA: ANAYA/HARITZA	<p>Ebaluazio bakoitzeko idatzizko bi froga mota egingo ditugu; lehena ebaluazioaren zehar egingo dira eta froga laburrak edukin aldetik izango dira, bigarrena amaieran izango da eta ebaluazioan zehar landutako eduki guztiak hartuko ditu. Hori dela eta, azken honi %60 ko pisua egokituko zaio eta besteen batez bestekoaren %40koa.</p> <p>Kalifikazioa: Era honetan kalifikatuko da:</p> <ul style="list-style-type: none">-Idatzizko frogak → 9p-Jarrera (Etxean zein gelan egindako lana, adierazitako interesa, parte-hartzea) → 0.5p-Euskara eta hizkuntza matematikoaren erabilpen eta zuzentasuna → 0.5p

EBALUAZIOAREN ONDORIOAK

Ebaluazioa gainditu ez duten ikasleei epe bat emango zaie testu liburuan agertzen diren ebatzitako ariketak egiteko eta zalantzak irakasleari planteatzeko. Ondoren idatzizko froga egingo dute.

Froga horretan 5 izan beharko dute gutxieneko nota gainditu ahal izateko. Berreskurapeneko azken nota erabakitzeke berriz, ebaluazioan izandako nota eta berreskurapen azterketan lortutakoaren arteko batez besteko ponderatua egingo da, %30 eta %70eko pisua egokituko zaielarik hurrenez hurren, beti ere gutxieneko 5a errespetatuz.

Kurtsoa gainditu ahal izateko ikasleek gutxieneko helburuak eskuraturik izan beharko dituzte ondorengo bideetatik:

- ✓ Hiru ebaluazioak banan-banan gaindituz.
Ikasleei batez bestekoa egingo zaie ebaluazioetako nota edo/eta, beharrezkoa balitz, berreskurapen notaren artean (goiko atalean aipatutako irizpideekin lortutakoa, alegia).
- ✓ Kurtso osoko azken azterketa, ohikoa edo apartekoa gaindituz.

Ikasleei gutxieneko nota 5 eskatuko zaie eta azken nota erabakitzeke ikasturtean zehar izandako notaren eta azterketakoaren arteko batez-besteko ponderatua egingo dugu, berriro ere, %30 eta %70eko pisuak egokituz, eta gutxieneko 5^a errespetatuz.

Ikasturteko nota finala hobetzeko, irakasleak ohiko azterketa egin ahal du eta %30 eta %70eko pisuak egokituz, eta gutxieneko 5^a errespetatuz.



OHARRAK

Ebaluazioaren zehar egiten diren froga laburrak edo kontrolak ez dira errepikatzen, nahiz eta ikaslea hutsegitea justifikatu eduki.

Ikasleko liburu digitala klase orduetan erabiltzen da eta mintegiak sortutako Google Sitea ikasleen eskura jarri da: <https://sites.google.com/a/aixerrotabhi.eu/mateiibatx/>